## GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

**2967**

**Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Zuzendaritza-Kudeatzailetzaren ebazpena, 2008ko apirilaren 30ekoa, apirilaren 12ko Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 7/2007 Legearen 48.2 artikulua ezartzeari buruzkoa**

Apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 48. artikuluko 2 puntuak hauxe xedatzen du: "Funtzionarioek beste bi egun gehigarri baliatzeko aukera izango dute seigarren hirurtekoa betetakoan; egun bat gehiago, zortzigarrenetik aurrera betetzen den hirurteko bakoitzeko".

Lege horrek Laugarren Azken Xedapenean xedatzen du Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabeteko epean sartuko dela indarrean, hau da, 2007ko maiatzaren 13an.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Zuzendaritza-Kudeatzailetzaren 2007ko ekainaren 4ko Ebazpenak, 2007ko ekainaren 27ko 77 zenbakiko Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkarian argitaratutakoak, apirilaren 12ko Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 7/2007 Legearen 48.2 artikulua Gizarte Ongizaterako Foru Erakundean ezartzearen gainekoak jasotzen zituen BIGARREN puntuan.

Apirilaren 12ko Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 7/2007 Legearen 37. artikuluak administrazio publiko bakoitzaren negoziazio mahaiei negoziatu beharreko gaiak zehazten dizkie, eta 1.m) atalean lan egutegia, ordutegia, lan egunak, oporrak eta baimenak, besteak beste, jasotzen ditu.

7/2007 Legeak 37. artikulu horretan xedatutakoaren arabera, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Negoziazio Mahaiak, 2008ko apirilaren 9an egindako bilkuran, erabakia hartu zuen apirilaren 12ko Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 7/2007 Legearen 48.2 artikulua ezartzearen gainean.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Zuzendaritza-Kudeatzailetzak eskumena du Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Negoziazio Mahaiak hartutako erabakia gauzatzeko, halaxe xedatzen baitu Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoa eratzen duen ekainaren 20ko 21/1988 Foru Arauaren (uztailaren 1eko ALHAO) 7.2. g) artikuluak, eta hari lotutako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Egitura eta Funtzionamenduaren Arautegia onartzen duen urtarrilaren 13ko Diputatuen Kontseiluaren 2/2004 Foru Dekretuaren (otsailaren 2ko ALHAO) 12. artikuluak. Hortaz,

EBATZI DUT:

LEHENENGOA.- Indarrik gabe uztea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Zuzendaritza-Kudeatzailetzaren 2007ko apirilaren 4ko Ebazpenaren BIGARREN atala.

BIGARRENA.- Bidezkoa da apirilaren 12ko Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 7/2007 Legearen 48.2 artikulua ezartzea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundean, modu honetan:

1.- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko funtzionarioek bi egun baliatzeko eskubidea izango dute seigarren hirurtekoa betetakoan; egun bat gehiago, zortzigarrenetik aurrera betetzen den hirurteko bakoitzeko.

2.- Baimen hori ondoko irizpideak oinarri emango da:

- Esparrua: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko langile guztiek, erakundearekin duten harreman juridikoa zeinahi dela ere, eskubidea izango dute erabaki honetako 1 puntuan xedatutakoa baliatzeko.

- Ezartze data: 2007ko maiatzaren 13tik aurrera, hau da, apirilaren 12ko Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 7/2007 Legea indarrean sartu zenetik aurrera.

- Baimenen izaera: baimen hori eguneko 8 lanorduren pareko izango da, lanaldi osoko izendapen edo kontratuetan, eta proportzioan emango da, lanaldi murriztuen kasuan.

- Baimena eskatzea eta ematea: Baimen hori eskatzen dutenek idatziz egin beharko dute eskaera, eta zentro eta zerbitzuetako zuzendari edo arduradunei 15 egun baliodun baino lehenago, gutxienez, bidali beharko diete. Horiek idatzizko ebazpena eman beharko dute 7 egun balioduneko epean. Ebazpenik eman ez bada, eskaera onartu egin dela ulertuko da.

## INSTITUTO FORAL DE BIENESTAR SOCIAL

**2967**

**Resolución de la Dirección-Gerencia del Instituto Foral de Bienestar Social, de 30 de abril de 2008, sobre la aplicación del Artículo 48.2 de la Ley 7/2007, de 12 de abril, del Estatuto Básico del Empleado Público.**

El punto 2 del artículo 48 de la Ley 7/2007, de 12 de abril, del Estatuto Básico del Empleado Público establece que "los funcionarios tendrán derecho al disfrute de dos días adicionales al cumplir el sexto trienio, incrementándose en un día adicional por cada trienio cumplido a partir del octavo".

Asimismo la Disposición Final Cuarta de la citada Ley dispone que entrará en vigor en el plazo de un mes a partir de su publicación en el "Boletín Oficial del Estado", es decir el 13 de mayo de 2007.

La Resolución de la Dirección-Gerencia del Instituto Foral de Bienestar Social de 4 de junio de 2007, publicada en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava nº 77 de 27 de junio de 2007, en su punto SEGUNDO, se pronunció sobre la aplicación del punto 2 del artículo 48 de la Ley 7/2007, de 12 de abril, del Estatuto Básico del Empleado Público en el ámbito del Organismo Autónomo Instituto Foral de Bienestar Social.

El Artículo 37 de la Ley 7/2007, de 12 de abril, del Estatuto Básico del Empleado Público, atribuye a las Mesas Negociadoras de cada Administración Pública las materias objeto de negociación y en su apartado m) del punto 1. indica, entre otras, las referidas a calendario laboral, horarios, jornadas, vacaciones y permisos.

Según lo dispuesto en dicho Artículo 37 de la Ley 7/2007, en la Mesa Negociadora del Organismo Autónomo Instituto Foral de Bienestar Social en reunión celebrada el 9 de abril de 2008, se llegó a un acuerdo sobre la aplicación del punto 2 del artículo 48 de la Ley 7/2007, de 12 de abril, del Estatuto Básico del Empleado Público.

La Dirección Gerencia del Instituto Foral de Bienestar Social es competente para llevar a efecto el acuerdo alcanzado en la Mesa Negociadora del Organismo Autónomo Instituto Foral de Bienestar Social, conforme a lo dispuesto en el artículo 7.2.g) de la Norma Foral 21/1.988, de 20 de junio, por la que se constituye el Organismo Autónomo Instituto Foral de Bienestar Social (BOTHA de 1 de julio), puesto en relación con el artículo 12 del Decreto Foral 2/2004, del Consejo de Diputados de 13 de enero, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura y Funcionamiento del Organismo Autónomo Instituto Foral de Bienestar Social (BOTHA de 2 de febrero), por lo que

RESUELVE:

PRIMERO.- Dejar sin efecto el apartado SEGUNDO de la Resolución de la Dirección-Gerencia del Instituto Foral de Bienestar Social de 4 de junio de 2007.

SEGUNDO.- En el ámbito del Organismo Autónomo Instituto Foral de Bienestar Social, procede la aplicación de lo establecido en el artículo 48.2 de la Ley 7/2007, de 12 de abril, del Estatuto Básico del Empleado Público, de la manera siguiente:

1.- Los personas funcionarias del Instituto Foral de Bienestar Social tendrán derecho al disfrute de dos días de permiso al cumplir el sexto trienio, incrementándose en un día adicional por cada trienio cumplido a partir del octavo.

2.- La aplicación de este permiso se realizará conforme a los siguientes criterios:

- Ámbito: Todas las personas empleadas públicas del Intituto Foral de Bienestar Social, independientemente de su relación jurídica, tendrán derecho a lo establecido en el punto 1 del presente Acuerdo.

- Fecha de aplicación: La fecha de aplicación será a partir del 13 de mayo de 2007, fecha de entrada en vigor de la Ley 7/2007, de 12 de abril, del Estatuto Básico del Empleado Público.

- Carácter de los permisos: Cada día de disfrute de este permiso dará lugar, a los efectos de cómputo horario, a 8 horas de tiempo de presencia, en el caso de nombramientos o contratos a jornada completa y proporcionalmente en el caso de jornadas reducidas.

- Solicitud y concesión: Quienes soliciten este permiso deberán cursar sus peticiones mediante escrito dirigido a las direcciones o responsables de los centros y servicios con una antelación de al menos 15 días hábiles. Dichas direcciones o responsables deberán resolver por escrito en el plazo de 7 días hábiles. En defecto de resolución se entenderá estimada la solicitud.

Baimenak malgutasun osoz gozatzeko emango dira, baina kontu izan beharko da eraginik ez dezan izan plantillako langileen % 50engan baino gehiagorengan.

Ezin izango da baimenaz gozatu abenduaren 31 baino geroago, halabeharrezko kasuetan izan ezik. Halakoetan, hurrengo urteko urtarrilaren 31 izango da epemuga

3.- 2007an ezartzea. Nola ezin izango den 2007ko egunez gozatu, dirutan ordainduko zaie erabaki honen baitan sartzen diren langile guztiei.

Egun bakoitzari dagokion diru kopurua kalkulatzeko, langile bakoitzak 2007an izandako antzinatasuna, hirurtekoetan, hartuko da oinarri, eta ezartze data zein den, halaxe zuzenduko da. Ondorioz, formula hau ezarriko da:

Lanpostuaren puntuak (kalitateagatik ematen den produktibitate ordainsaria barne) * puntuak, guztira * baimen orduak * koefiziente murriztailea (0.638)/1592

Diru kopuru hori 2008ko lehen seihilekoan ordainduko da, baldin eta aldi horretan GOFEn ez badago Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 48.2 artikuluari buruzko epai judizialik betetzeke.

HIRUGARRENA.- Ebazpen hau Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen iragarki tauletan eta Arabako Foru Aldundiaren Aldizkari Ofizialean argitaratzea, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko langile guztiek horren berri izan dezaten.

LAUGARREN.- Ebazpen hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren hurrengoan jarriko da indarrean.

BOSGARRENA.- Ebazpen honen aurka, administrazio bidea amaitzen baitu, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian. Horretarako, bi hilabete izango dira, horrela jasotzen baita uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8.1.a) eta 46.1 artikuluetan (uztailaren 14ko EAO) eta horiekin harremana duen urtarrilaren 13ko Diputatuen Kontseiluaren 2/2004 Foru Dekretuaren 27.3 artikuluan. Foru dekretu horren bidez onartu zen Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Egitura eta Funtzionamenduaren Arautegia.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko apirilaren 30a.– Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zuzendari-kudeatzailea, LUIS FELIPE OCHANDIANO GREDILLA.

Estos permisos se concederán con la máxima flexibilidad de disfrute respetando que el mismo no afecte a más del 50 % de la plantilla.

El límite para el disfrute de permiso será el 31 de diciembre, excepto en casos de fuerza mayor. En tal caso la fecha límite será el 31 de Enero del año siguiente.

3.- Aplicación para el año 2007. Dada la imposibilidad de disfrutar los días correspondientes al año 2007, se procederá a la oportuna liquidación económica para todo el personal incluido en el ámbito de este acuerdo.

El importe correspondiente a los días se calculará con base en la antigüedad que cada empleado tuvo, a efectos de percepción de trienios, en el año 2007 y será corregido en función de la fecha de aplicación. En consecuencia, se aplicará la siguiente fórmula:

Valor punto del puesto (incluyendo la paga de productividad por calidad) * puntos totales * horas permiso * coeficiente reductor (0,638)/1592

El pago de la cantidad resultante se realizará en el primer semestre de 2008, siempre que en ese período no haya pendiente, en el ámbito del IFBS, ninguna resolución judicial referida al mencionado artículo 48.2 del Estatuto Básico del Empleado Público.

TERCERO.- Publicar la presente Resolución en los tablones de anuncios del Instituto Foral de Bienestar Social y en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava para general conocimiento de la plantilla del Instituto Foral de Bienestar Social.

CUARTO.- La presente Resolución entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava.

QUINTO.- Contra la presente Resolución, que agota la vía administrativa, puede interponerse Recurso Contencioso-Administrativo en el plazo de dos meses ante los Juzgados Contencioso-Administrativos de Vitoria-Gasteiz, según lo dispuesto en los artículos 8.1.a) y 46.1 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de dicha Jurisdicción (B.O.E. de 14 de julio), puestos en relación con el artículo 27.3 del Decreto Foral 2/2004, del Consejo de Diputados de 13 de enero, que aprueba el Reglamento de estructura y funcionamiento del Organismo Autónomo Instituto Foral de Bienestar Social.

En Vitoria-Gasteiz, a 30 de abril de 2008.– El Director Gerente del Instituto Foral de Bienestar Social, LUIS FELIPE OCHANDIANO GREDILLA

# II ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

## Udalak

### AIARA

**2981**

**Arau subsidiarioen berrikuspenaren 2. aldaketari hasierako onarpena ematea.**

Aiarako udalbatzak 2008ko apirilaren 25eko bilkuran ondokoa ERABAKI zuen:

1) Udaleko ordezko arauen berrikuspenaren bigarren aldaketari hasierako onarpena ematea:

- Ekipamenduaren erabilera aldatzea lurzoru urbanizaezinean.
- Hirigintzako parametroak.

2) Jendaurrean 30 egun baliodun jartzeko aldia irekitzea; horretarako, ALHAOn eta eremuan hedapenik handiena duten egunkarietakoren batean argitaratuko dira argitaratu beharreko iragarkiak. 30 eguneko epe horretan, iragarkia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, dokumentazio osoa udal idazkaritzan egongo da interesdunen eskura, zertarako eta epe horretan eta jendaurreko ordutegian, dokumentazioa aztertu eta kasuan kasuko alegazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

# ADMINISTRACIÓN LOCAL DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA II

## Municipios

### AYALA

**2981**

**Aprobación inicial de la 2ª modificación de la revisión de Normas Subsidiarias.**

La Corporación de Ayala en Sesión celebrada el día 25 de abril de 2008 ha adoptado el siguiente ACUERDO:

1º) Aprobar Inicialmente la Segunda Modificación Puntual de las Normas Subsidiarias Municipales:

- Modificación del uso de equipamiento en Suelo No Urbanizable.
- Parámetros Urbanísticos.

2º) Abrir un periodo de información pública de 30 días hábiles, publicando los anuncios correspondientes en el BOTHA y en un diario de los de mayor tirada en la zona. Durante dicho periodo de 30 días hábiles, contado desde el día siguiente al de la publicación del correspondiente anuncio en el BOTHA, toda la documentación estará en Secretaría Municipal a disposición de los interesados, para que durante este tiempo y en horario de atención al público, pueda ser examinada y presentadas todas las alegaciones y sugerencias a que diere lugar.